

PRENTSA OHARRA

2025eko BAIONAKO BESTETAKO AFITXA LEHIAKETA BAIONA HIRIA 2025eko BESTETAKO AFITXAREN EGILEAREN BILA DABIL

Baiona Hiriak diseinatzaile grafiko profesionalak edo diseinu grafikoko ikastaro baten azken urteko ikasleak gomitatzen ditu 2025eko Baionako Bestetako afitxa lehiaketan parte hartzera. Haien sormena Baionako Besten historia eta balio identitarioei adi egon daitekeen hurbilketa garaikide batean engaiatu behar da, dimentsio unibertsal edo tokiko batean. Hautagai-txostenak, berantenik 2024ko abenduaren 11 rako, astelehenez, eguerdian, igorri berhar dira. Hautatuak izanen diren afitxak publikoaren bozketetan aurkeztuak izanen dira 2025eko otsailaren 7a eta 21aren artean.

Baiona Hiriak 10 – 15 grafista aurre-hautatu nahi ditu, Herriko Kontseilutik Kanpoko Besta batzordean proposatuak izanen direnak. Irabazleak 4.000 €ko ordainsaria, BEZ barne, eskuratuko du; beste sortzaileek 500 €-ko ordainsaria, BEZ barne.

Egutegia

Aurkezpen-txosten bakoitza 2024ko abenduaren 11a (asteazkena) eguerdia baino lehen bidali beharko da concoursaffichedesfetes@bayonne.fr helbidera. Ondotik, Herriko Kontseilutik kanpoko batzordea berehala bilduko da hauatutako txostenen artean 5 egile hautatzeko. Bost egile horiek beren sormen proposamena landu beharko dute Baionako 2025eko Bestetako afitxarako, egutegi zehatz baten arabera.

Edizio honetarako, batzordearen botoek azken puntuazioaren %40a izanen dute, publikoaren botoa gainerateko %60a izanen delarik. Publikoak **Turismo Bulegoan eta Didam-en** online sormen proposamenak ezagutzen ahalko ditu, eta interneten bidez bozkatu **fetes.bayonne.fr webgunean, 2025eko otsailaren 4tik goiti.**

Baionako Bestetako afitxa ofiziala 2025eko martxoaren hasieran aurkeztua izanen da.

Lehiaketaren modalitateak kontsultatzeko: affichedesfetes.bayonne.fr

Baionako Bestak 2025eko uztailaren 9tik (asteazkena) 13ra (igandea) programatuak dira.